

EBAZPENA, 2024 EKAINAREN 07koa, EUSKERA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ERREKTOREORDERNA, UPV/EHUKO TITULUDUN BERRIENTZAT ATZERRIKO ENPRESATAN PRAKTIKAK EGITEKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN BEKEN 2024-2025 EDIZIOKO EPEZ XIX PROGRAMA OINARRIAK ONARTZEN DITUENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Erasmus+ programan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren laguntzaz, tituludun berriei laguntzeko atzerriko enpresatan praktikak egiteko, EPEZ programaren deialdi berria antolatatu du.

UPV/EHUK tituludunen laneratzeko aukerak hobetzen laguntzeko gogoia du eta hortik, hain zuzen, sortu da programa hau, tituludunek lan munduari berme handiagoz aurre egin ahal izateko gaitasunak izan ditzaten. Halaber, belaunaldi libre eta beste kultura edo gizarte batzuen aurrean begirunetsuak izateko nazioarteko mugikortasunak duen garrantziaz ohartzeko balio du. Beste alde batetik, programak mugikortasunari bultzada sendoa ematea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera desberdintasuna murriztea ere badu helburu.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Erasmus+ mugikortasun-deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea. Deialdi horren bidez, Erasmus+ mugikortasun-beken EPEZ XIX programa (Enpresatan praktikak European zehar/prácticas en empresas en Europa) arautzen eta iragartzen da, atzerrian titulua lortu berri duten pertsonentzat praktikak egiteko (2024/2025 edizioa).



1. DEIALDIAREN HELBURUA	3
1.1 Helburua.....	3
1.2 Beken ezaugarriak.....	3
1.3 EPEZ proiektuaren antolaketa eta kudeaketa.	3
2.- BEKEN KOPURUA, HORIEN EDUKIA ETA IRAUPENA	4
2.1. Beken kopurua	4
2.2. Edukia	4
2.3. Iraupena.....	4
3.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK	4
3.1. Hautagaiak bete beharreko baldintzak.....	4
3.2. Hautatuek bete beharreko baldintzak.....	5
4.- FINANTZIAKETA	5
5.- ESKABIDE PROZEDURA	6
5.1. Eskaerak aurkezteko epea	6
5.2. Bidali beharreko dokumentazioa.....	6
5.3. Dokumentazioa bidaltzea	6
5.4. Eskaera zuzentzea eta hobetzea	8
6. HAUTAKETA PROZEDURA	8
6.1. Ebaluazio- eta hautaketa-irizpideak.....	8
6.2 Hautaketa prozesuaren faseak.....	8
7.- EMANDAKO BEKEN EBAZPENA	10
8.- HAUTATUEN PARTE HARTZEKO KONPROMISUAK	10
8.1 Egonaldiaren aurretik	10
8.2 Egonaldia egin ondoren.....	11
9.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK	12
10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA	13
11.- ORDAINKETAK	14
12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA	14
13.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK	14
13.1 Araubide juridikoa	14
13.2 Errekurtsuak	15
ERANSKINEN ZERRENDA	16

1. DEIALDIAREN HELBURUA

1.1 Helburua

Erabaki honen xedea da 2024/2025 edizioako EPEZ XIX programaren oinarriak arautzea eta deialdia egitea. EPEZ programak UPV/EHUko 2023/2024 ikasturteko tituludun berriak praktikak Europa Batasunaren eremuko enpresetara egitera joan daitezzen sustatu nahi du, Erasmus+ programaren bidez, haien gaitasun profesionalak hobetu, lana aurkitzeko aukerak zabaltu eta, azken finean, prestakuntza prozesua beste ingurune kultural batean osa dezaten.

Deialdia ebazteko baldintza izango da kreditu nahikoa egotea horretarako.

1.2 Beken ezaugarriak

Programa honetako mugikortasun beka diru laguntza itzulezinak izango dira, publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioen arabera emango dira, eta lehiaketa banaren bidez adjudikatuko zaizkie eskatzaileei. Hortaz, erabaki honetan agertzen diren balorazio irizpideak eta hautaketa prozesuak aintzat hartuta, lehiaketan puntuazio altuena lortu duten hautagaiei bakarrik emango zaizkie beka, denak banatu arte.

EPEZ XIX mugikortasun beka jasotzeak ez dakar kontratu edo estatutu harremanik onuradunaren eta EPEZ XIX proiektuko antolatzaileen edota praktikak egingo diren enpresaren artean.

Bekadunek egin beharreko lanen kontrola eta jarraipena EPEZ XIX programako antolatzaileei dagokie. Antolatzaileek beken garapenaren inguruan egokitzat jotzen dituzten beste egiaztapen egin ahal izango dituzte.

1.3 EPEZ proiektuaren antolaketa eta kudeaketa.

- **Kudeaketa:** EPEZ XIX proiektuaren antolaketa konplexua da. Hori dela eta, hainbat erakundek parte hartzen dute, haien baliabide eta gaitasunak eskainiz. Europako Batzordea da proiektua finantzatzen duen erakunde nagusia, SEPIEren bidez, eta baldintzak arautzen dituena. Eusko Jaurlaritzak laguntzen du, Hezkuntza sailaren bitartez, proiektuaren finantzaketarekin; UPV/EHUko Euskera, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza da ekimenaren sustatzailea eta haren eginkizun nagusiak dira informazio kanpaina egitea, hautagaiak aukeratzeko prozesua burutzea eta proiektua ebaluatzea. UPV/EHUko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako errektoreordetzek laguntzen dute programaren kofinantzaketan, gestioan eta zabalkundean. Azkenik, proiektua kudeatzeko arduratuko den erakunde bat dago, ERASMUS+ programaren esparruan Europako enpresatan praktikak egiteko EPEZ proiektuko zerbitzuak kontratatzeko baldintza tekniko orriari jarraituta.
- **Argitaratzea:** Erabaki hau argitaratuko da:
<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>
Deialdi honi dagozkion gainerako erabakiak, ekintzak eta interesgarria den edozein informazio ere ikusgai egongo da euskarri horretan.

- **Datak:** Erabaki honetan ezarritako datak, eskaerak aurkezteko azken eguna izan ezik, gutxi gorabeherakoak dira, eta EPEZ programaren antolatzaileek zehaztuko dituzte aurreko oinarrian adierazitako Internet helbidean.
- **Destinoak:** Destinoak aldatu ahal dira hautatutako profilak praktiketara egokitzeko.

2.– BEKEN KOPURUA, HORIEN EDUKIA ETA IRAUPENA.

2.1. Beken kopurua

2024/2025 edizioko EPEZ XIX programan gehienez 40 beka esleitu daitezke. Beka horiek atzerriko mugikortasun gastu nagusien zati bat ordaintzeko dira: praktiken bilaketa, laguntza ekonomikoa, kudeaketa, antolakuntza eta aseguruua.

2.2. Edukia

Programako onuradun bakoitzari enpresa hartzaileak tutore bat egokituko dio, enpresako egonaldia ikuskatzeko eta praktikan zehaztutako helburuak betetzen laguntzeko.

2.3. Iraupena

Mugikortasun beken iraupena 3 hilabetekoa izango da, onuradunak egindako ikasketekin zerikusia duten praktikak egiteko. **Mugikortasunak 2025ko otsaila eta ekaina bitartean burutuko dira.**

3.– BETE BEHARREKO BALDINTZAK

3.1. Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Hautagaiek, eskaera egiterakoan, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo mugikortasunak dirauen aldian, bizileku duen herrialdean aitortua izatea errefuxiatu, aberrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza baimena indarrean duen aldi baterako egoiliar izaera edo ikasketa egonaldirako baimena izatea mugikortasunak dirauen bitartean Estatuko legediari jarraituz.
- Ikasketen azken mailan edo master ofizialen batean matrikulatuta egotea.
- Erasmus+ Programan guztira 9 hilabete baino gehiago parte hartu ez izana, matrikulatua dagoen zikloaren baitan (erreferentzia gisa, kontuan edukiko dira Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak dituen datuak). Salbuespenak izango dira Kreditu-kopuruagatik 24 hilabeteko mugikortasuna ahalbidetzen duten titulazioak.

- Harrera herrialdeko hizkuntzan edo, aukeran, ingelesez ahoz komunikatzeko gai izatea, eta gaitasun hori frogatzeko moduan izatea.
- Diru laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik jaso ez izana, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu arrazoiengatik diskriminazioetatik jasotakoak barne.

3.2. Hautatuek bete beharreko baldintzak

- Hautatuek UPV/EHUko **unibertsitate titulu ofizial** baten jabe izan behar dute, edo bestela, **2023/2024 ikasturtean, ekain eta urri bitartean, lortutako** ondoko ikasketa hauetako baten titulu eskubideak ordainduta izan beharko dituzte (lizentzia, diplomatura, gradua, ingeniari-tza, arkitektura edo master ofiziala), **praktika egiten hasi baino lehen**.
- Mugikortasuna, ikasketak bukatu eta hurrengo urtean zehar burutu beharko da.

4.- FINANTZIAKETA

Mugikortasun fisikorako banakako laguntza, helmugako herrialdearen arabera:

HERRIALDEEN TALDEA	HERRIALDEEN ZERRENDA	HILEKO ZENBATEKOA
1.Taldea	Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia eta Suedia	500 €
2.Taldea	Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Herbehereak, Portugal	450 €
3.Taldea	Bulgaria, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Mazedonia del Norte, Polonia, Errepublikak, Txekia, Errumania Serbia eta Turkia	400 €

Gizarteratzeko eta aniztasunerako estrategia berriaren barruan, SEPIEk aukera ematen die unibertsitateei **250 € hileko laguntza gehigarria** emateko iraupen luzeko Erasmus+ mugikortasuna egiten duten **"aukera gutxiagoko" kolektiboetako ikasleentzat**. Deialdi honen esparruan, honako ikasle-kolektibo hauek hartzen dira halakotzat:

- Estatuko Administrazio Orokorraren **izaera orokorreko ikasketa-beka** baten onuradun, izatea, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea, edo unibertsitate mailako ikasleak eskolatzeko beka baten onuradun izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emana.
- Errefuxiatua** izatea edo **babes subsidiariorako** eskubidea izatea, edo Espainian **nazioarteko babeserako** eskaera aurkeztu izana.
- Legez aitortua eta kalifikatua izatea %33ko edo gehiagoko desgaitasuna.

- d) Familia ugaria kategoria berezian
- e) Terrorismoaren biktimak eta senideak
- f) Genero-indarkeriaren biktimak
- g) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak
- h) Hiperaktibitatearekiko arreta-gabeziagatikoa nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGHA/AGH)

Laguntza hau jaso ahal izateko, egoera horietako batean dauden ikasleek izena emateko unean adierazi beharko dute, eta hori justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa erantsi beharko dute.

5.- ESKABIDE PROZEDURA

5.1. Eskaerak aurkezteko epea

2024ko ekainaren 07tik 2024 uztailearen 08ra arte.

5.2. Bidali beharreko dokumentazioa

Programan parte hartu nahi duten eta 4. oinarrian planteatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izena eman beharko dute eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko dute online eskaera-inprimakia betez (bide telematikoa). Inprimaki hori webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>

Online inprimakiaren bidez, eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
- UPV/EHU ez den beste unibertsitate baten bidez Erasmus+ Programan parte hartu duten ikasleek, egonaldiaren ziurtagiriaren kopia bidali beharko dute. Horretarako gaitasuna duen zerbitzuak igorri beharko du ziurtagiria.
- Erasmus+ mugikortasuna UPV/EHUren bidez egin dutenek ez dute ziurtagiririk gehitu beharko.
- Hizkuntza tituluen fotokopia (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, MCERL)

5.3. Dokumentazioa bidaltzea

Dokumentazioa bidaltzeko, urrats hauek bete beharko dira:

1. Online inprimakia betetzea eta 5.2 puntuan adierazitako dokumentazioa bertan eranstea.
 - 1.1 OHARRA: izen-ematea web inprimakiaren bidez egitea lortzen ez bada, eskabide-orria pdf formatuan egongo da eskuragarri web orrian (<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>), eta deialdi honen 5.2 puntuan jasotako dokumentazio guztiarekin batera Erregistroaren bidez aurkeztu beharko da (3. puntua ikusi).

2. Eskatzaileak **eskaeraren frogagiria** jasoko du jakinarazpenak jasotzeko eskaeran agertzen den helbide elektronikoa.

3. **Eskabidearen frogagiria jaso ondoren**, Erregistroaren bidez aurkeztu beharko du:

Aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 e) artikulua eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita UPV/EHUrekin elektronikoki harremanetan jartzen diren pertsonen eta erakundean lan egiten duten langileen identifikazioari eta sinadura elektronikoa buruzko jarraibidea:

- **Eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUren erregistro elektronikoa**, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, eskaeraren "Hartzailea" eremuan hautatuz: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa (U02000247)**. Horretarako erabiliko da UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da ere sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa edo, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. UPV/EHUko bulego horietan presentzialki aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, espediente administratibo elektronikoa sartzeko, eta originalak itzuliko zaizkio interesdunari, hark bere burua funtzionarioaren aurrean identifikatu eta egintza horretarako berriazko baimena eman ondoren, aintzat harturik UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita erregistro arloko laguntza bulegoei, UPV/EHUUn gaitutako funtzionario publiko baten bidez eskabideak, idazkiak edo bestelako komunikazioak aurkezteari eta gaitutako funtzionario publikoen erregistroari buruzko jarraibidea.

Eskaera erregistro presentzialki aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

EPEZ XIX deialdia
Oficina de Relaciones Internacionales del Campus de Gipuzkoa
Centro Ignacio María Barriola
Plaza Elhuyar 1
20018 Donostia-San Sebastián

Bide telematikoz bidalitako eskabideak, aurreko paragrafoetan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, EZ AURKEZTUTZAT joko dira, eta programatik kanpo geratuko dira.

Programari buruzko informazioa UPV/EHUUn emango da, telefonoz, od.international@ehu.eus emailaren bidez eta Interneteko helbide honetan <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>

5.4. Eskaera zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonak erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, 5.3 puntuan adierazitako baldintzetan

6. HAUTAKETA PROZEDURA

6.1. Ebaluazio- eta hautaketa-irizpideak

Hautapen Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzu burua eta teknikari bat.

Hautaketa Batzordeak honako balorazio irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Espediente akademikoaren batezbesteko nota: % 30 (masterren kasuan, graduko nota kontuan hartuko da).
- Kasuan kasuko herrialdeko hizkuntzaren ezagutza maila edo/eta ingelesarena: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila edo titulu baliokideak: % 30eraino (C1: % 25, B2: % 20, B1: % 15).
- EPEZ proiektuari lotutako merezimendu espezifikoak (elkarrizketa pertsonala eta CVaren ebaluazioa): % 40.

6.2 Hautaketa prozesuaren faseak.

Hautaketa-prozesuak bi fase ditu.

1) **1. FASEA:** Lehenengo fasean, UPV/EHUn matrikulatuta dauden eta **2023-2024** kurtsoan azken ikasturtean ikasten ari diren eskatzaileak aurrez hautatzen dira.

I. **Aurretiko hautaketa prozesurako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda:**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, jasotako eskaeren zerrenda argitaratuko da UPV/EHUko Euskera, Kultura eta Nazioartekotzearen Errektoreordearen erabaki bidez. Hala badagokio, zerrendan adieraziko da zer eskaerek ez dituzten agiri guztiak erantsi, baita zer agiri falta zaizkien zehatz-mehatz azalduko ere, 10 egun balioduneko epean hutsuneak zuzendu eta behar diren agiriak aurkez ditzaten. Adieraziko da, halaber, aipatutako epea amaituta agiriak aurkeztu ezean, ulertuko dela interesdunak eskaera bertan behera utzi duela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Eskaerak deialditik kanpo geratuko dira:

- Deialdi honetan eskaerak aurkezteko ezarritako epez kanpo aurkezten badira
- Erabaki honetan adierazitako baldintzak betetzen ez badira.

II. Aurretiko hautaketa prozesurako onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda:

Behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak jartzeko epea amaitu ondoren, aurreko atalean adierazitako lekuan argitaratuko da, EHUko Euskera, Kultura eta Nazioartekotzearen Errektoreordearen erabaki bidez., hautaketa-prozesuan parte hartuko duten hautagaien behin betiko zerrenda.

2) **2. FASEA:** Bigarren fase batean, lehen faserako aurrehautatutako pertsonen artean hautatzen dira ikasketak 2023-2024 ikasturtean amaitu dituztenak.

I. Hautaketa prosezua

Aurretiko hautagaiak banako elkarrizketa izango dute, betiere eskaera kopurua kontuan hartuta, EPEZ proiektuko antolatzaileekin, beka hartzeko libre ote dauden eta bekarekiko zer motibazio eta interes ote duten jakiteko eta, halaber, egonaldiari buruzko informazioa jasotzeko. Elkarrizketa pertsonala ebaluaziorako irizpideen baitan dago; hain zuzen, 61 atalean jasotzen diren merezimendu espezifikoetan.

Banakako elkarrizketan parte hartzeko eta hautaketa-prozesutik kanpo ez geratzeko, nahitaezkoa da izangaiak elkarrizketan izena ematea hautaketa-prozesuan zehar adieraziko diren bide eta epeetan (izen-emate formulario bat argitaratuko da web-orrian iraillean, eta komunikazio informatiboak egingo dira posta elektronikoz).

Gainera, beka bat lortu nahi duenak Europako Curriculum Vitaea (Europass ingelesez) eraman behar du elkarrizketara: <http://europass.cedefop.europa.eu>.

II. Hautatuen behin-behineko zerrenda

Hautaketa Batzordeak ebazpen honetan ezarritako irizpideen arabera egingo du balorazioa. Horren ondoren, azaroan, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen errektoreordeak hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, egindako baremazioaren ondorioz lortutako puntuazioaren arabera hierarkizatuta (proiektu honen berri emateko aurrez aurreikusitako lekuetan). 10 eguneko epea emango da erregistro elektronikoaren bidez alegazioak aurkezteko.

III. Hautatuen behin betiko zerrenda

Aurreko atalaren arabera aurkeztutako erreklamazioak eta alegazioak ebatzi ondoren, bekak emateko behin betiko ebazpena argitaratuko da.

Nolanahi ere, hautatutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera, herrialde hartzaile bakoitzeko ordezkoen zerrenda argitaratuko da. Ordezkoek sor daitezkeen plaza hutsak beteko dituzte, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Hutsik dagoen lanpostuaren lanbide-profila.
- Hizkuntzen ezagutza
- hautaketa-irizpideen bidez lortutako puntuazioa.:

7.– EMANDAKO BEKEN EBAZPENA

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen errektoreordeak beka emateko eta ukatzeko emandako ebazpena indarrean sartuko da <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez> helbidean argitaratzen denetik.

Errekurtsioa jartzeko epeak zenbatzeko, argitalpen elektronikoa hartuko da kontuan.

8.– HAUTATUEN PARTE HARTZEKO KONPROMISUAK

8.1 Egonaldiaren aurretik

Behin hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuta, eta mugikortasuna hasi aurretik, mugikortasuna kudeatzeko nahitaezko dokumentu batzuk daude. Dokumentu horietakoren bat ez badago, mugikortasuna ez da finantzatuko eta bertan behera geratuko da.

1. Antolatzaileek **informazio pertsonal osagarria** eskatuko dute, pertsona bakoitzaren profilerako egokienak diren helmugak prestatzeko. Hautatutako bakoitzari mezu elektronikoa bat bidaliko zaio
2. **Beka onartzeko dokumentua.** Esleipendunek bekaren onarpenari buruzko dokumentu bat sinatu beharko dute. Beka onartzea (ikus eredia I. **eranskinean**) ezinbesteko baldintza da mugikortasuna gauzatzeko. Ebazpen honetan adierazitako baldintzetan beka onartzen ez bada, erreserba-zerrendan lehenengo agertzen den pertsonari esleituko zaio beka.
3. **Learning Agreement:** Harrera erakundeak sinatutako lan programa .
 - Dokumentu horrek erakusten du harrera unibertsitateak egonaldia onartu duela. Aurreikusitako praktikaren jarduerak jasoko ditu.
 - Dokumentua modu egokian bete eta sinatu beharko da, beharrezko eremu guztietako informazioa eta helmuga egonaldirako aurreikusitako datak barne.
 - Ezinbestekoa da "*Traineeship in digital skills*" eta "*Level of language competence*" atalak osatzea.
4. Aukeratutako hegazkin-txartelaren edo **garraiobidearen txartelaren** kopia.
5. **Bidaia aseguru kontratatatu izanaren frogagiria**, estalduren eta ordainketaren deskribapena jasoko duena.
 - a. Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguru izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatiko edo istripuagatiko, erantzukizun zibilagatiko, aberriratzegatiko eta osasun-lekualdatzeagatiko laguntza mediko eta farmazeutikoaren estaldurak.
 - b. Bidaia aseguru kontratatzea Erasmus+ programak ezarritako betebeharrak *sine qua non* bat da, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk **IBILI** aseguru eskaintzen die irakasle-ikertzaileei.

6. **OLS (Online Linguistic Support):** Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin beharko dute Linguistic Support aplikazioren (OLS) bidez. Hizkuntzaren lehen ebaluazioa egin ezean, ezin izango da mugikortasun hori egin, eta baja emango zaio ikasleari Erasmus+ programan. Hori dela eta, ez du jasoko beka.

Goian aipatutako dokumentazioa entregatzean, **Nazioarteko Harremanen Bulegoak parte-hartzaileari bidaliko dio:**

- i. **Dirulaguntza hitzarmena** sinatzeko. Sinadura elektronikoa nahitaezkoa da.
- ii. **Learning Agreement** EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak sinatua.

Ezinbestekoa da **Learning Agreement** eta **dirulaguntzen hitzarmena** alderdi guztiek **sinatuta** gotea mugikortasuna egin **AURRETIK**.

Bi bilera egingo dira esleipendunekin, pertsona bakoitzaren destinoei buruzko informazio zehatza emateko.

8.2 Egonaldia egin ondoren

Likidazioa egiteko, honako hauek aurkeztu beharko dira od.international@ehu.eus helbidean, egonaldia egin eta hilabeteko epean:

- i. **EU GALDETEGIAREN PDF kopia** (EU Survey), online beteko dena galdetegia betetzeko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Galdetegia betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.
- ii. **Egonaldiaren ziurtagiria sinatuta.** Benetako egonaldia eta egonaldiaren iraupena egiaztatu beharko da, harrera-erakundeak edo -enpresak behar bezala sinatu eta zigilatutako egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren bidez. Benetako jarduera-egunak jasoko dira, kontuan hartuta ziurtagiriaren datak egonaldiaren finantzaketa-dataren berdina edo geroagokoa izan behar duela. Ziurtagiria jatorrizkoa izango da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabea, eta xede-erakundearen harrera-unitateko zuzendaritzak sinatu eta zigilatu beharko du.
- iii. **Mugikortasuna egin izanaren frogagiriak** (hegazkineratzeko txartelak, alokairu-kontratuak, etab.), posta elektronikoz eskaneatuta

Mugikortasunaren iraupen-aldiak behar bezala egiaztatzen ez badira, jasotako zenbateko osoa itzultzeko eskatuko da.

9.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- a) Irteera baino lehen eskatutako dokumentazioa aurkezteko epeak betetzea. Bestela, ez zaio bekarik esleituko.
- b) Emandako beka onartzea adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta antolakuntzak zehazten duenean, erabaki honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
- c) Sinatzea beka jasotzeko bateraezintasunik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena, erabaki honen II. eranskinari jarraituta.
- d) Bekaren esleipendunak Gizarte Segurantzaren Europar Osasun Txartela (EOT) eskuratu beharko du, eta harrera erakundearen edo enpresaren sartu aurretik.
- e) Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin beharko dute Linguistic Support aplikazioaren (OLS) bidez. Hizkuntzaren lehen ebaluazioa egin ezean, ezin izango da mugikortasun hori egin, eta baja emango zaio ikasleari Erasmus+ programan. Hori dela eta, ez du jasoko beka.
- f) Arduraz burutzea ezarritako epean agintzen zaizkion prestakuntza zereginak, mugikortasun bekaren izaeraren arabera. Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin.
- g) Parte hartzea harrera herrialdean EPEZ programako antolatzaileek proposatzen dizkioten ekimen guztietan (ongi-etorria emateko bilera, ebaluazio bilera formalak eta ez-formalak, etab.).
- h) Jakinaraztea EPEZ programako antolatzaileei ea xede berbererako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetako diru laguntzarik edo laguntza, diru sarrera edo baliabiderik eskuratu den.
- i) EPEZ programako antolatzaileei edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketaren berri ematea, baldin eta zirkunstantzia hori beka emateko orduan kontuan hartu bada edo bekaren garapen arruntari eragiten badio.
- j) Betetzea EPEZ programako antolatzaileek jakinarazten dizkioten jarraibideak, bereziki beka jasotzen den bitartean sor daitekeen jabetza intelektual eta industrialari eta konfidentzialtasun egin-beharrari dagokienean.
- k) Sinatzea praktikak egiteko harrera enpresan errespetatu beharreko konfidentzialtasun betebeharraren inguruan eska dakizkiokeen agiriak, eta nolana ere, praktiketan garatutako jarduerari buruz jakin ditzakeen informazioak isilpean gordetzea.
- l) Onartzea bekak iraun bitartean egiten diren txostenak EPEZ programako antolatzaileek argitara ditzaketela.
- m) Haren tutore gisa aritu eta haren prestakuntzaz arduratuko diren pertsonen jakinarazten dizkioten jarraibideak betetzea.
- n) Entregatzea bekan erabilitako hegazkin txartelen edo ontziratze txartelen frogagiriak.
- o) Ematea EPEZ programako antolatzaileek eskatzen dioten informazio guztia, batik bat beka ebaluatzeakoak direnak, bekak iraun bitartean eta beka amaitu ondoren. Zehazki, esleipendunak idatzi egin behar du egonaldiari buruzko txostena eta bete egin behar du Erasmus+ Agentziak (Mobility Tool / Participant Report inkesta) emandako ebaluazio formularioa.

- p) Itzultzea, behar ez bezala jasotako diru kopuruak eta behar bezala egiaztatzen ez dituen gastuei dagokien diru kopurua.
- q) EPEZ programaren erakundeari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso izana.
- r) Errespetuz eta arduraz jokatzeko EPEZ proiektuan parte hartzen duten tutore, lankide eta gainontzeko partaideekin

10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA

Bekaren esleipenduna izateari utziko zaio, bekaldea amaitzen denean ez ezik, honako egoera hauetakoren bat sortzen denean

- a) Uko egitea, espreski edo isilbidez. Ikasleak deialdietako epeak eta plazen esleipena egoki betetzen dituela bultzatzeko, penalizazioak ezarri ahal izango dira beka bat lorturik beka horri behar bezala justifikatu gabe uko egin dioten ikasleentzat, baldin eta uko egitea beranduegi egiten bada eta era horretan plaza erabiltzeko beste hautagai baten aukerak zapuzten badira. Penalizazio hori jasoz gero, ezin izango da parte hartu programa honen hurrengo deialdian.
- b) Errebokazioa betebeharrak ez betetzeagatik edo beka emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- c) Gerora sortutako bateraezintasuna edo ezinbesteko kausa

Beka aldia amaitzen denean izan ezik, bekaduna izateari uzteak bekatik kobratutako eskubide ekonomikoak itzultzea ekarriko du berekin. Itzuli beharreko zenbatekoa garatu gabe geratu den beka denboraldia kontuan hartuta kalkulatu da

Diru laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak UPV/EHUri itzuli beharko zaizkio, gehi bidezko legezko interesak, abenduaren 17ko 698/1991 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretarako diru laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duenak, ezartzen duenaren arabera dagozkionak.

Bekaduna izateari uzten zaiola adierazten duen Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearen erabakiak ezarri behar du ea ordezkoa hautatzea egokia den ala ez, deialdia amaitzeko geratzen den denbora edo beste hainbat gorabehera kontuan hartuta. Ordezko hori bekaduna izango da eta beka agortzeko falta diren hilabeteetan aurreikusitako jarduerak egin beharko ditu. Plaza hutsen bat bete behar izanez gero, Hautaketa Batzordeak ordezkoa proposatu ahal izango du, jarraian, ondorengo ordenan, aipatzen diren irizpideei erreparatuz

- Hutsik dagoen lanpostuaren lanbide-profila.
- Hizkuntzen ezagutza
- hautaketa-irizpideen bidez lortutako puntuazioa.

Beraz, ordezkapenen lehentasun ordena kontuan hartuko bada ere, baliteke aurretik ezarritako ordezkoen ordena berrantolatu behar izatea.

11.- ORDAINKETAK

Oro har, laguntzak banku transferentzia bidez kontu korrontea batera ordainduko dira. Kontu korrontea horren titularrak edo baterako jabea, beka jasotzen duen onuradunarena izan behar da. Ikasleak kontu korrontea eman beharko du eta irekita egon beharko da beka jaso beharreko aldi osoan..

Bekaren ordainketa, SEPIE erakundetik jasotako zenbatekoa eta herrialdearen arabera baldintzatutakoa, bi zatitan egingo da: lehenengoa, mugikortasuna hasten denean, % 70-a eta bigarrena, % 30-a mugikortasuna amaitzerakoan, beti ere benetako egonaldia eta iraupena ziurtatzen baldin bada. Ordainketa bakoitza ebazpen honen 8. puntuan adierazitako dokumentazioa bidaltzearen mende dago.

12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA

- a) **Ziurtagiri profesionala:** Harrera enpresek ziurtagiria egingo dute eta bertan zehaztuko dira ikasleak egindako lana, praktiken iraupena eta aprobetxamendu maila.
- b) **Euskal Herriko Unibertsitatearen ziurtagiria.** Ziurtagiri horretan programan parte hartu izana zehaztu eta egiaztatuko da.
- c) **Learning Agreement for Traineeships:** prestakuntza ibilbide europarra zehaztuko da, ibilbide horretan jasotako lan esperientzia edo trebakuntzari buruzko datu guztiak adierazita. Zehazki, EPEZ proiektuaren esparruan emandako denboraldia egiaztatzen duen dokumentu espezifiko emango da.

13.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

13.1 Araubide juridikoa

Honako hauek arautuko dute EPEZ mugikortasun programa: 1) Erabakiaren oinarriek; (2) 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, bereziki VI. Idazpurua, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Diru-laguntzen Erregimena" izenekoa; (3) Diru-laguntzen Lege Orokorrak (indarrean dagoena); (4) Erasmus+ Mugikortasun programa (Erasmus+ programme guide), eta (5) aplikatu daitezkeen gainerako araudiak.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetera dagokien tauletan esleipen erabakirik argitaratu ez bada, interesdunek eskaera atzera bota dela uler dezakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 24 artikuluan zehaztutakoaren arabera.



13.2 Errekurtsoak

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordeari, COARD/EISBari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein ere erabil dezake.

Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik 3 hilabete igaro eta ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsizat joko da administrazioaren isiltasunagatik, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioa, 2024ko ekainaren 07a.

34086833M
MARIA JUNCAL
GUTIERREZ (R:
Q4818001B)

Firmado digitalmente
por 34086833M MARIA
JUNCAL GUTIERREZ (R:
Q4818001B)
Fecha: 2024.06.07
09:06:11 +02'00'

M. Juncal Gutiérrez Mangado

Euskera, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea



ERANSKINEN ZERRENDA

Eranskin hauek argitaratuko dira webgunean:

- **I. ERANSKINA:** EPEZ XIX PROGRAMAKO MUGIKORTASUN BEKAREN ONARPENA.
- **II. ERANSKINA:** ZINPEKO AITORPENA